

## DANTE ZORIONDUN

Au diñost adiskide batek: zerutiko ta munduko go-  
goz ondo ornidua dan lekaime leial batek, egunero  
errezatzen ei dau, Eleiz Ama doneak, Dante olerka-  
ria zoriondunen eta santuen errenkadan jarri dagian.  
Dante etzala izan gero «ogi deunerako uruna» ta  
grina txar nagusien artean geienbat txastatu ebaza-  
nak lizunkeria ta arrokeria izan zirala diñotsoenai,  
lekaime adoretzuak, bat bere artegatu barik, onela  
erantzuten ei dautse:

—Dante, bai, pekataria izan zan gaztaroan, beste  
santu batzuk lez; baiña bere azken-urteetan esker do-  
netzaillea jadetsi eban. Izan be, *Donokia* idatzi eba-  
na, nai-ta-ez, Jainkoak berak goi-argitua izan bear;  
eta gainera, atzenengo kantuak ez ebazan egin al izan-  
go, bizi zalarik, kistar osotasuneko argitan, ots, san-  
tutasun benetakoan murgilduta egon ez ba'litz. Kantu  
orreik goitiko argi ta maitasun dirdai betean idatziak  
doguz, eta ezin izan ezelan be gizaki ilkor baten la-  
nak: ziur gagoz, beraz, olerkaria, il aurretik be, zo-  
riondunen zeru gorenengoraiño jaso izan zala. Eta  
*Donokia* amaituta ia bertatik il zan ezketiño, gauza  
ziurra dogu Dante'k osorik kitutu ebazala gaztetako  
erru ta gaiztakeriak.

Nik ez dot ezagun lekaime kementsu ori; baiña n berton agiri-agirian agintzen dautsat berarenagaz b doiala nire eskari ezer-eza be; nire ustez, ba, gizona barrien barri Jainkoagana zuzentzen buru-biotz-ind guztiak erabilli ta martiri antzantzeko bizia eroa dauan gizuren asmutsuak, altaran ezartea merezi da beinik-bein olako emakumen lagundi bat sortu dau lekaime illun batek beste bai.

Antxiñatik otoitz egin izan dot nik, Kristobal Kolo eta Girolamo Savonarola zoriondunen arteko egite eskaturik. Siñismenaren gizuren bi onein ondoan, po zarren, jarriko dot bidali goiargitu ta ziñopa aren ize na, ots, neure erkide izan zan Dante Alighieri'ren izena.

Berari buruzko barri bat gogora ekarri nai dot naiko bakana ta, nire aburuz, oso gitxik dakienea.

Ba-dira lege bi beintzat antxiñatxu dala italiar lege-batzarrak aundikiro ontzat emonak, Dante'ri dago-kiozanak eta iñoiz bete bakoak. Lenengoagaz, Dante'ren ikasgu bat sortzen zan Erroma'ko Ikastetxe Nagu-sian: Carducci'ri eskiñi eutsoen, baiña ukatu egin eban arek, edo, adi-erazo ebanez, duin etzalako, edo Bolo-ña'ko abi beroa itxi nai ez ebalako. Eta ikasgua, nik dakidala, beti egon da bete barik.

Beste legeak, barriz, Erroma'ko enparantza baten, olerkari jainkotiarrari Laterri osoaren lepoz oroitarri eskerga bat jasoteko agintzen eban. Baiña nik ez dot uste, iñoiz be, orretarako ezer egin danik. Eta ona Dante, atzerritarrentzat Itali'ko gogo-zantzu dana, Laterri uriburuan, gomutara dakargun arri-tako bat be- ra barik.

Montecitorio'k, bada, eskiñi ebana, oi dauanez, bete eztaben ezkerro, Vatikanoko'k beintzat iñoiz eskiñi ez dauana bete dagiala laster.